



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

**EGEF FINANTZAZIOA: MEDIKU-  
IKERKETARAKO ETA INGURUMENAREN  
JASANGARRITASUNARAKO GIPUZKOAKO  
PROIEKTUAK**

**24. HILABETEKO IRUZKINA**

**> 2011ko Uztaila**





## GIPUZKOAKO BOST PROIEKTU BERRIK 2007-2013 EGEF FONDOAREN DIRU-LAGUNTZA JASOKO DUTE

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak aurretiaz onetsi ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak baterako finantzaketa europarra eskuratzeko xedearekin aurkeztutako bost proiektu berrien inguruko informazioa helarazi zitzaion Euskal Herriko 2007-2013 EGEF Programa Eragilearen Jarraipen Batzordeari joan den maiatzean. Honako hauek dira proiektuak: Biodonostia: minbiziaren inguruko Ikerketa Azpiegitura eta Ikerketa Proiektuak, Smart Grid Gipuzkoa, Erlea proiektua, ibilgailu elektrikoaren sustapena Elgoibarren eta Sarecar Sarea.

Jarraian, 2007-2013 EGEF fondoaren diru-laguntza jasoko duten proiektu berri bakoitzaren helburu eta ezaugarri nagusiak laburki jasotzen dira:

### > **BIODONOSTIA: Ikerketa Azpiegitura eta Mediku-ikerketa Proiektuak**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Biodonostia Institutuarekin eta Kutxarekin batera sinatutako lankidetzahitzarmenaren barruan kokatzen da ekimen hau, oro har, arlo biosanitarioan ikerketa aplikatua gauzatzeko eta minbizia ikertzeko. Bestalde, ikerketa horien emaitzak zabaltzeak izan dezakeen garrantziak lurraldeko eta inguruko gainerako eragileentzat erreferentzia-elementu bilakatu daitekeen uste osoa hartu da abiapuntutzat.

Uste hori abiapuntu gisa hartuta, Biodonostiarekin sinatutako akordioari esker, Institutuak arloko zuzendaritza izango du eta arlo teknologikoaren eta klinikoaren arteko zubilanak egingo ditu.

Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Biodonostia Institutuaren arteko lankidetzahitzarmenak, hitzarmenaren xedeari lotutako Institutuaren ikerketa-proiektuak garatzeko beharrezko eta berariazko azpiegituren hornidura laguntzea aurreikusten du.

Lankidetzahitzarmenak 1,2 milioi euroko aurrekontua du jarduera horiek garatzeko. Gainera, eta Europarekin baterako finantzaketa gauza dadin, proiektua Euskal Herriko 2007-2013 EGEF Programa Eragilearen (EGEF EHPE) "Berrikuntza eta enpresa-garapena eta ezagutzaren ekonomia" izenburuko 1. ardatzean jarduera gisa txertatu da.

Info +: Biodonostia:

<http://www.biodonostia.org>






### > SMART GRID: Gipuzkoan esperimentazio eta banaketa elektrikorako mikrosare adimenduna

Proiektu hau Gipuzkoan energia esperimentaleko sare adimenduna diseinatu eta martxan jartzean oinarritzen da. Horrela, prototipo moduan, produktu eta ekipo berriak ebaluatzeko plataforma gisa balioko du, lurraldeko enpresek euren sorkuntza, karga, biltegitratze eta energia garbi eta berriztagarriak banatzeko sistemak balioztatu ditzaten.

Gipuzkoako energia esperimentaleko sare adimendunak *iSare Gipuzkoa* izena izango du eta Donostiako Miramon Teknologia-parkean kokatuko da. Honako hauek izango ditu: sistema elektromekanikoak (transformadoreak; tentsio baxu eta ertaineko babesak), biltegitratzeko sistemak (bateriak, inertzia-bolanteak eta superkondentsadoreak), sistema sortzaileak (eolikoak, fotovoltaikoa, kogenerazio-taldea, diesel sorgailua eta erregaiaren pila) eta mikrosare arkitektura. Azken honek, osagai hauek ditu: komunikazioak trukatzeko azpiegitura, kontrol-zentroa, kontagailu adimendunak eta ibilgailu elektrikoentzako kargatzeko guneak.



*iSare Gipuzkoa* proiektuaren garapenean Gipuzkoako Foru Aldundiak, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak, Elektronika, Informatika eta Telekomunikazioetako Euskal Klusterrak (GAIA), IK4-k eta JEMAK parte hartzen dute.

*iSare Gipuzkoa* proiektua garatzeko 4 milioi euroko aurrekontua dago. Europarekin baterako finantzaketa gauza dadin, proiektua Euskal Herriko 2007-2013 EGEF Programa Eragilearen (EGEF EHPE) "Berrikuntza eta enpresa-garapena eta ezagutzaren ekonomia" izenburuko 1. ardatzean jardura gisa txertatu da.

info +: *iSare Gipuzkoa*.

Aurkezpen bideoa: <http://www.gipuzkoa.tv/play.php?vid=2214>



### > **ERLEA: Bidasoaldean uraren zikloa kudeatzeko lanetan hobekuntzak modu esperimentalean garatzea**



Proiektu hau Irun-Hondarribiako Servicios de Txingudi-Txingudiko Zerbitzuak elkartearen (uraren ziklo integralari, hondakinei eta bide-garbiketari lotutako eskumenak kudeatzen dituen enpresa publikoa) ekimenez aurkeztu zen eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babesia eman dio. Proiektuaren xedea uraren ziklo integrala eraginkortasunez kudeatzea da, denbora errealean sareetako kontagailuen funtzionamenduaren ezagutza zehatzaz baliatuz.

Gipuzkoarentzat interesa duen proiektua da, proiektuaren garapen eta aplikazio teknologikoari esker, etorkizunean lurralde osoan uraren kudeaketa eta hondakinen bilketa hobetzea ekar dezake eta. *Erlea* proiektuak jauzi kualitatibo bat eman asmo du oraindik ere eskuz egiten den datuak biltzeko sisteman; halaber, denbora errealean oinarritutako sistema baterantz aurrera egin nahi du, esaterako, gorabeherez ohartarazi edo kontsumoak eta eskaera-ordutegiak optimizatu ahal izateko.

*Erlea* proiektuak informatika-aplikazioen garapena eta ezarpena eta zerbitzuen garapena barne hartzen ditu. Horrela, lurraldean ezagutza bultzatu eta sortzeko proiektu bilakatu da, teknologiaren alorreko garapenak eta aplikazioak etorkizunean lurralde osoan uraren kudeaketan eta hondakinen bilketan hobekuntza ekar dezakeelako.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren helburua proiektuaren irati-irakurketako moduluen sare finkoa zabaltzean xedatzen da.

Jarduera honen aurrekontua 750.000 euro da. Gainera, Europarekin baterako finantzaketa gauza dadin, *Erlea* proiektua Euskal Herriko 2007-2013 EGEF Programa Eragilearen (EGEF EHPE) "Berrikuntza eta enpresa-garapena eta ezagutzaren ekonomia" izenburuko 1. ardatzean jarduera gisa txertatu da.

Info +: *Erlea*

<http://ow.ly/5BjcM>





### **Ibilgailu elektrikoaren alokairu-sistemak eta erabilera partekatua Gipuzkoako udalerrietan garatzea**

Bi ekimen hauek Elgoibarren eta Debabarrena eskualdean (Ibilgailu elektrikoaren proiektua) zein Ataun, Beasain, Ordizia eta Lazkaoan (Sarecar proiektua) ibilgailuak alokatzeko zerbitzu publikoak hedatzera bideratuta daude eta helburu bikoitza dute: barne hartzen dituzten udalerrietako herritarren mugikortasun premiak asetzea, ibilgailu elektrikoaren erabilera garraio jasangarriaren alternatiba gisa gizarteratuz; eta bestetik, atmosferan CO2 emisioak murriztea eta modu horretan joan-etorri jasangarriagoak eta garbiagoak lortzea.

Bi proiektuak Europarekin baterako finantzaketaren barne sartu dira, Euskal Herriko 2007-2013 EGEF Programa Eragilearen (EGEF EHPE) "Energia-baliabideak eta garraio-zerbitzuak eskuratzea" 3. ardatzean, "Energia-jasangarritasunaren sustapena" gastuaren kategorian. Eta zehazki, ekimen berezi gisa, aurretik onetsitako "Energia-jasangarritasunaren sustapena Gipuzkoan" proiektu globalaren barruan.

### **> Auto eta motor elektrikoaren alokairua eta erabilera partekatua Elgoibarren pertsonak eta salgaiak garraiatzeko**

Proiektu hau Elgoibarko Udalaren *Elgoibar Berdea* ekimenaren barruan kokatzen da; ekimen horren bidez, ingurumenarekiko errespetuzko ohiturak sustatu nahi dira, pertsonen eta udalerrietan ingurunearen mesederako. Hurrengo lau urteetan Elgoibar hiri- eta eskualde-mugikortasun jasangarriko laborategi bilakatzea du xede.

Zehazki, lau jarduerari idolo dituzten proiektuak: herritarrei zuzendutako ibilgailu elektrikoak alokatzeko zerbitzua garatzea (*carsharing*), autoak, bizikletak edo motor elektrikoak barne hartuta; udalerrietan enprekin lankidetzatza, euren langileek ibilgailu elektrikoak parteka ditzaten; salgaiak banatzeko "azken milia" sistema jasangarri bat ezartzea, furgoneta, motor edo/eta bizikleta elektrikoaren bidez; eta lagundutako pedalez eragiteko triziklo baten prototipoa diseinatu eta garatzea.



Elgoibarko proiektuaren baitan beste hainbat balizko zerbitzu aurreikusten dira, esaterako, udalerritik kanpoko joan-etorrietarako autoak elkarrekin erabiltzeko sistema ezartzea, garraio-gastuak partekatzeko *car-pooling* zerbitzua ezartzeko aukera, edo udalerrietan hondakin solido ez-organikoak biltzeko ibilgailu elektrikoak erabiltzea.

Proiektuak jasotzen dituen ekimenak garatu daitezkeen Gipuzkoako Foru Aldundiak Elgoibarko Udalarekin sinatutako lankidetzatza-hitzarmenak 300.000 euroko inbertsioa aurreikusi du 2010-2012 aldirako. Proiektuaren aurrekontu osoa, berriz, 700.000 euro da.

Info +: *Elgoibar Berdea*

<http://www.elgoibar.org/webb/pdf/elgoibarberdeae.pdf>



### > Sarecar Sarea Ataun, Beasain, Ordizia eta Lazkaon

Ataungo udalerrian auto elektrikoak alokatzeko zerbitzu publikoa garatzeko proiektua da, eta Ataungo Udalak sustatu du udalerriko biztanleen eta hurbileko herritarren mugikortasun premiak asetzeko. Horrela, ibilgailu elektrikoaren erabilera garraio jasangarriaren alternatiba gisa gizarteratzea eta garraio publiko arruntak egungo premiak bete ezin dituen kasuetan mugikortasuna hobetzea du helburu.



Ibilgailu elektrikoak erosteaz gain, proiektuak kargatzeko sistema garatu eta ezartzea eta zerbitzuari begirako aparkaleku bereziak prestatzea aurreikusten du proiektuak. Halaber, ibilgailuak eta alokairu-zerbitzua kudeatu eta gainbegiratzeko plataforma teknologiko bat garatzea jasotzen du. Sarecar Sarearen ibilgailu-flota % 100 elektriko da, eta erabiltzen diren ibilgailuak soilik motor elektrikoek higiarazten dituzte. Gainera, Sareko ibilgailu guztiek elektronika daramate barruan, eta uneoro bateriaren mailak kontrolatu eta kargatzeko prozesuak modu egokian planifikatzen ditu.



Bestalde, Sarecar Sareak erabiltzen duen ezarpen teknologikoari esker, ibilgailuen alokairu-zerbitzua urrunetik administratu eta gainbegiratzeko aukera ematen du; halaber, auto elektrikoaren autonomiak kudeatu eta optimizatu daitezke, erreserbak on line nahiz bide publikoan kokatutako makinaren bidez egin daitezke, eta RFID txartel pertsonalak erabiliz autoak eskuratzea eta horiek kargatzea errazagoa izango da.

Proiektu honetan adierazitako ekimenak ezartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Ataungo Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenak 700.000 euroko aurrekontua du 2011. urterako.

Info +: Sarecar

<http://www.sarecar.net/eu/>

---

**EGEFren erkidegoarekin baterako finantzaketaren onuradun diren Gipuzkoako proiektuei buruzko informazio gehiago...**

**Funts europarrak Gipuzkoan. 2007-2013 aldia (Ogasun eta Finantza Departamentua)**

[http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/eus/pre\\_not.asp](http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/eus/pre_not.asp)